

# GIZARTE BAZTERKETAKO EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ARRETARAKO ZENTROA

Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza



## ZERGATIK?

Gipuzkoan hainbat pertsona bizi dira kalean eta gizarte bazterketako egoeran. Pertsona horiek dituzten arazoan izaera desberdina dela-eta, premiei modu integralean eta koordinatuan heldu behar zaie.

## ZEIN?

Kalean bizi diren eta gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonak, izaera pertsonaleko eta harreman nahiz osasun arloko narriadura larria dutenak.



## ZERTARAKO?



Gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen ostatu zerbitzu bat eskaintzea, intentsitate ertaineko eta handiko laguntza orokorrekin, batez ere laguntza eta babes funtzioa betetzeko eta, hala badagokio, kalteak murrizteko. Pertsonaren garapena, integrazioa, herritartasun aktiboa eta ingurunean parte hartzea bultzatzea.

## NOLA?

Eraikin bat birmoldatzea proposatzen da lurralde osoa hartuko duen arreta integraleko egoitza zentro bat egiteko; gainera, modulu espezifiko bat izango du bazterketa edo babesgabetasun egoeran edo horretarako arriskuan dauden emakumeentzat.




## NON?

Donostiako San Juan de Dios komunitatearen eraikin bat birmoldatzea, gauzez eta egunez 24 plaza eskaintzeko gaitasuna izango duena.

## NOIZ?

2020ko ekitaldia.



200.000€